

EKONOMIA ETA LAN MUNDUA (2013-01-09)

BILERAREN ERREALITATEA

PARTAIDE KOPURUA: 7

- Emakumeak: 2
- Gizonak: 5

UDALETIK:

- Teknikariak: 2 Zein? Turismo teknikaria eta Ingurumen teknikaria
- Zinegotziak: 1 Zein? Idurre Alkatea

BESTEAK:

- Jatorriaren aldetik: 0
- Adin tarteak (gutxi gorabehera):
 - o 30 edo gutxiago: 0
 - o 31- 60: 7
 - o 60 edo gehiago: 0

IDAZKARIA: Maitane Urtxintxatik

DINAMIZATZAILEA: Aritz, herritarra

BOZERAMAILEAK /ORDEZKARITZA (baldin badaude): momentuz ez daude

BILERA ORDUA: 2013ko urtarrilaren 9an, arratsaldeko 20:00etan (gaizki ulertua egon zen, 19:30etan erabaki baitzen lan taldean eta deialdia 20:00etan egin zen)

LEKUA: Bermeoko Kultur Etxean.

GAI-ORDENA.

- Saioaren aurkezpena eta gaurko bileraren helburuak
- Aurreko bilerako akta onartzea eta idazkari berria izendatzea
- Turismoaren gaiarekin jarraitzea, proposamenak adostea
- Bizkaibus zerbitzuaren emaitza, Aldundiak ekarritakoa
- Hurrengo bileraren data eta gai ordena

GAIAK

EZTABAIDA GAIA: TURISMOA

Proposamenak egiteko eguna da gaurkoa, egindako diagnostikoa laguntza moduan dugularik. Baina proposamenak egiten hasi aurretik, galdera bati erantzun behar diogula aipatzen da:

- Zein bisitarirengana iritsiko gara?

Izan ere, heldu nahi dugun bisitariaren arabeko proposamenak landu beharko ditugu, eta proposamen horiek norabide bat edo bestea hartuko dute. Baliabide berdinekin norabide oso ezberdinak hartu ditzakegu, gidetan sartzen den edukiagatik, turismoa non 'saltzen' den kontuan hartuta...

Beraz, galdera hau erantzuteko abiapuntuetako bat da galdetzea nolako turismoa daukagun gaur egun: pasadan dagoena (Urdaibaitik San Juanera...), alojamentuak duen garrantzia, etab.

Bigarren galdera bat egiten da:

- Zein da Bermeotik pasatzen diren turistek lehentasuna? Nondik datoz, eta nora doaz?

San Juan da puntu garrantzitsua. Bermeotik pasatzen diren bisitarien %95a bertatik dator, ala bertara doa. Beraz, Gaztelugatxe eta Bermeoren arteko lotura egin beharra daukagu.

Zein balore ditu San Juanek? Kulturala (historiko patrimoniala), Paisajistikoa, eta sinbolikoa (sinbolo eta erritual askok lotzen dute Bermeora).

Aukeratzeko dugun balorearen arabera norabide bat edo bestea emango diogu turismo proiektuei.

- Zeintzuk izan daitezke proposamenak?
Irteerak itsasotik, Bermeoko portutik
Azpiegiturak hobetu: begiratokiak txukundu, seinalizazioa hobetu, aparkalekuak egokitu, autobusa gelditzeko guneak jarri... (dagoen arazoa da konpetenziak nahasiak direla. Baina eskatu da bilera bat Gaztelugatxen eskumena duten agente guztiekin, bertako egoera eta irisgarritasuna hobetzeko)

San Juan Bermeorekin lotzeko modua erritualak eta sinbolismoa izan daitezkeela baloratzen da, oinarri sinbolikoa. Etortzen diren bisitariari kontatu behar zaizkie bertako istorioak, Bermeo eta San Juan lotzen dituen kontakizunak.

Horretaz gain, herritarrekin lotura bat egitea oso garrantzitsua dela aipatzen da. Honekin esan nahi dena da herritarrek ondare hori ezagutu egin behar dutela, eta bere sentitzea ezinbestekoa dela. Horrela, bisitariak ere egingo dituzte lotura horiek.



Horretarako, gauza ezberdinak egin behar dira, herritarrei bideratutako ekintzak ere egin beharko dira, bermeotarrek bertako ondarea eta istorioak ezagutu ditzaten. Proposamen batzuk honakoak izan daitezke: astean egun batzuetan museoetako sarrerak doanik izatea herrikoentzat, eskolarekin bisitak egitea...

Gertatzen dena da gauza asko itxi egin direla, edota galtzen doazela. Esaterako, portua (Bermeoren ezaugarrietako bat izan dena) itxia dago, kontserbak iada herritik kanpo kokatuak daude, sareginak edota itsasoarekin lotutako beste lanbideak dituztenak ez dira erakustaldiak egiteko prest egoten... Falta den ideietako bat da herritarrak direla beren ondareari etekin ekonomikoa atera diezaieketenak (turismoaren ikuspegitik).

San Juanetik datorren edo bertara doan bisitari bat etorri eta Bermeon zer egin dezakeen galdetzen da taldean. Galdera honetatik, ibilbide bat egitea proposatzen da, hau da, bisitariari Bermeoko puntu esanguratsuenetatik bidaia bat egitea proposatuko diogu, eta puntu bakoitzean, ondo egokitutako eta Bermeoko ondare inmaterialarekin, etab. lotutako kontakizunak izango ditu bertan (toki horren garrantzia, berezitasuna, San Juanekin lotura...)

Adostutakoa / Ondorioak:

Puntu horren eztabaidan gaudelarik, 21:20etan saioa amaitzea erabakitzen da. Hurrengo bilerarako, Bermeoko mapa bat ekarri eta maparen gainean ibilbide bat irudikatu dezakegu, eta ibilbide hori errepasatuaz, ibilbideak beharrezko dituen hobekuntza proposamen guztiak egin ditzakegu.

Horretaz gain, Edertze Planak ibilbide horren eta Bermeoko turismoaren ardatzak zeintzuk izan daitezkeen identifikatzen, eta beraz, proposamenak egiten lagun gaitzake. Hori dela eta, hurrengo batzarrerako Edertze Planaren aurkezpen txiki bat egitea positiboki baloratzen da.



BESTERIK:

Bizkaibus zerbitzuari egin genizkion alegazioen erantzuna komentatu gabe geratu da, ez duelako denborarik eman.

Hori dela eta, hurrengo bileran turismoaren gaiarekin hasi aurretik landuko dugu.

DATORREN BILERAKO GAI-ORDENA:

- Aurkezpena, aktaren onarpena eta akta hartzailea zehaztea
- Bizkaibus zerbitzuari egindako alegazioen erantzuna
- Turismoaren gaian proposamenak zehaztea
- Gaiaren balorazioa
- Hurrengo gaia eta eguna zehaztea
- Saioaren balorazioa

Hurrengo bileraren data:

2013ko urtarrilaren 23an, arratsaldeko 19:30etan